

Onditz Iturbe Gorbeia Suzieneko podiumean

Igorreko lasterkariak hirugarren egin eban Gorbeia Suzien Merrell Skyrace Munduko Kopako Zeanuriko lasterketan, Julia Font eta Daniela Oemus en atzetik. Gizonezkoetan, Luca del Perok irabazi eta, Manuel Merillasek eta Lorenzo Rotak osotu eben lasterketa nagusiko podiuma. Lasterketa nagusian lehen arratiarra Jokin Zabala bediazarra izan zan eta 21k lasterketan, laugarrena eta seigarrena be arratiarrak izan ziran.

14. orrialdea



BEGITUREN Oporretako Argazki Lehiaketako irabazlea Miren Begoña Idigoras izan da

Guztira 57 argazki egon dira lehian, bidaien gaineko hausnarketea bultzatu eta udaren esentzia erakusten dauan narratiba bat sortu dabenak.

Argazki irabazleak, Ipiñaburuko ardi-txakur lehiaketako momentu bat jasoten dau. Aurtengoa, hemengoa eta errealitatea izan arren, beste sasoi bateko uda dirudiana, iraganetik edo margolan kostunbrista batetik erreskatautakoa.

Guztiz desbardina da bigarren saria irabazi dauan Eneritz Atutxaren argazkiak kontetan deuskuna. Idigorasenak gure argazko distantzia moduko bat badakar, Atutxarenak urrunekoagaz bat egiteaz egiten deusku berba. Singapurren aterata dago, hormairudi bateri eta bidaia hori egindako protagonista batzuk irudian integretan dira hormairudiko personaiakaz mimitizauta. **8. eta 9. orrialdeak**



AREATZA

Azokea, liburua, bazkaria eta erromeria Areatzako Euskal Jaian

Hilaren 12an, ospatuko da. Nekazaritza eta Artisautza produktuen Azoka, goizeko 10:00etan zabalduko da. Ostean, Arantzarte jantza taldearen emonaldia, kalejirak, herri bazkaria, berakatz-zopea iluntzean, eta erromeria be egongo dira. Aurreko egunean *Dolu bat eta dolu bi* liburua aurkeztuko da. **7. orrialdea**

ARRATIA

Zaintzaileen autozaintetarako berbaldi zikloa eratu dau AUMk

Arratiako Udalen Mankomunitateak prestakuntza berbaldiak antolatu dauz menpekotasuna daukien personak zaintzen dabezan senideentzat, zaintzaileen artean autozaintetako ohiturak bultzatzeko. Urri bigarrenean zehar izango dira herri guztietan. **5. orrialdea**

UBIDE

Ludoteka, ikasgela eta erabilera askotako gela inaugurau dira

Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzeagaz, Ubiden, ludoteketa barriztau, herrian ez egoan ikasgela bat sortu eta aire barri bat emon deusie erabilera askotako geleari. Inaugurazinoa urri lehenengoaren 27an izan zan.

Lehen ludoteketa egoan lekuan dago, sasoi baten zinema be izandako Lopena izeneko eraikinean. Astelehenetik domekara jai egunak barne, 08:00retatik 21:00etara egongo da espazio hau zabalik, "herritarak gozo egoteko".

Erabilteko araudia udaletxean dago eskuragarri. **5. orrialdea**



Literatura txokoa

UMEZURTZEN ABERRIA

Ez da liburu barria gaur dakarguna, 2017an argitaratu eban Txalaparta argitaletxeak, eta orduetarik hona euki dot liburua etxean, baina uda honetan begira jo deust eta ebatu egin dot.

Izenburuak berak emoten deusku lehenengo informazio esanguratsua. *Umezurtzen aberria*, euskaldunon aberria aldarrikatzen daben askok gurasoren bat galdu ebelako frankisten amorruren pean, Julen Kaltzadak kasu baterako; eta baita euskaldunon aberria aldarrikatzen dogunok aberri bako umezurtzak garalako. Hortik abiatuta erraz irakurten dan liburua da, eta informazio asko emoten deusku. Hasteko, umezarora kontatzen deusku egileak, frankistek fusilau

ebelako aita barik hazi behar izan eban ume baten gorabeherak. Tarte horretan jaioterrian eta orduko Busturian zelango bizimoduak eukien euren baserrian azaltzen dau, eta irakurten dauanak itsasoa bedardia be izan leitekela ikasiko dau, besteak beste.

Gero, etxeko prakadun bakarra izanda abadetzearen bidea eta ondorioz gonak janzteak hartzeako ebatzia etorri zan, eta abadegaien etxean bizimoduak zelangoa zan argitzen dau. Han hasi zan hainbat gauza ikasten: teologia eta bestelako ikasgaiak ezetik, etxeko euskal girotik urtenda erdarazkoa zala mundua, baita abadetzak ikasketak be; berak euskaldunon, langileen eta oro har menperatuen eskubideen

alde egin gura eban arren, eleiza katolikoaren arduradun nagusiek bestelako interesak eukiezala. Behin abade eginda, egokitu jakozan herrietan euki zituan esperientzia aberasgarriak, eta herriari eta gazteei lagunduteko egin zituan ahalginak be ondo argi agertuten dira liburuan. Horren guztiaren ostetik, bizitzan sufridu behar izan dituan hiru kartzelaldiak, Espainiatik eta Frantziatik jatorkuzan politiken hipokresia; eta amaitzeko, euskaldunok inozko denporan geure estadia eukitea lortzean badogu, estadi hori zelangoa izango litzateken irudikatuten dau, ironia handiagaz.

Liburu ederra nire sasoikoen-tzako, umeak ginanean gure helduen munduan jazoten ziranak

kontetan ditu-ta. Horrezaz gainera, euskaldunon munduak jasan behar izan dituan eraso zitelen erreparoa be egiten dau; beraz, interes handikoa da euskaldun gazteentzako be, jaso doguzan erasoen barri euki dagien.

Rafa Ugalde



Julen Kaltzada

Umezurtzen aberria

Txalaparta, 2017

224 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri lehen. 30tik urri bi. 6ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 7tik 13ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 14tik 20ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardianik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa

05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa-Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta

jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Indarkeria matxistea berton

Ostera be urri lehenengoaren 12an albiste izugarriagaz hasi genduan eguna: Bilbon, Santutxun, gizonak andrea hil eban euren etxean. Yamely Gonzales eukan izena. Gure babes eta alkartasun guztia adierazo gura deusagu andrearen senide, lagun eta gertukoei.

Hain hur, hain leku ezagunetan gertatu dala entzuten dogunean barriro be konturatzen gara ze punturaino inguratzen gaituan biolentzia matxistek eta hotzikara batek astintzen deusku gorputza; geure gorputzetan jotzen daualako zuzen-zuzenean biolentzia horrek. Geure bizitzak dagoz jokoan hemen. Horregaitik exijiduten dogu hau lehen mailako arazo poitikotzat hartzea.

Badakigu biolentzia matxistea sistematikoa dala eta androk

bizitzako alor guztietan jasaten dogula, horregaitik jarrera konplizeak alboratu eta egunerokoa be benetako neurriak hartu dagiezala exijiduten deutsegu jente-arteari eta norbanakoei. Arduratu gaitez danok ea ahalik eta lasterren lortzean dogun lakra hau desageratu arazotea.

Bizitzaren aldeko apustu erradikala egiten dogu, bat bera be larregi da; eta argi daukagu beharrezkoa dan aldaketarako, antolaketa eta autodefensa feministea doguzala tresnarik eraginkorrenak. Feministok erantzuteko prest gagoz!

Indarkeriarik bako bizitza izateko eskubidea daukagulako, martxan jarraituko dogu, burrukan danok batera; nazkatuta eta batzuetan nekatuta be egon arren, badakigulako kalera urtetea eta burrukan jarraitzea besterik ez daukagula. Ez dogu etsiko!

"Gora borroka feminista!"

ARRATIAKO MUGIMENDU FEMINISTA

Arratiako Eleizeak bere ikasurteari hasikerea emon deutso

Urri lehenengoagaz batera askok ikasurteari hasikerea emoten deusie: eskolan, kiroletan, eskulanetan... Arratian dabilan Eleizeak be bere ikasurte hasikerea euki dau hile horretan.

Eleizbarrutiari lotuta Derion "Goazen!" deritxan ekitaldian parte hartuko dogu. Honegaz Bilboko Eleizbarrutiak Ebangelizatze VI. egitasmoan sakondu gura dau. Familiak, gazteak, etorkinak, beharizanean bizi diranak... hainbat eta hainbatentzako aukerak aurkezten dira.

Hemen, barriz, Arratian, parrokia guztietan katekesiko ikasurtea hasiko da. Lehen Hezkuntzako bigarren mailako umeak hasten dira katekesiko lehen mailan (2017an jaiotakoak). Umetxoek hezkuntzan adimena eta gorputza hezitzea ezinbestekoa dogu eta horregaz batera arlo espiritual be hezitzea gure seme-alabentzat lagungarri izan daitekela uste dogu eta horretan laguntzeko Arratiako Eleizea prest agertzen da.

Arratiako parrokia guztietan talde bat sortzeako aukerea dago, egutegi eta ordutegia gurasoen arabera jarriko da herri bakotxean, eta interesa daukanak bere herriko parrokiara joan daitela.

Horregaz batera Astigintzako gazte taldeen ekintzak be hasiko dira urri bigarrenaren 19an mendi martxa bategaz.

Beste ekintza asko burutzen dira: eguneroko mezea, osasun pastoraltza taldea, etorkinak mezea, Caritas, zemendiko pobreziaaren aurkako eguna... Lagun eta egoera bakotxarentzako aukera bat Eleiza bizitzan parte hartzeako.

CARLOS OLABARRI

ERETXIA



JOSEBE BLANCO
Artzaina

Ardi-uletan bilduta

BEGITUTIK artzaintzaz idazteko eskaerea jaso nebanean, ez nekian nondik heldu. Beste arloetan legez, hamaika ertz ditu mundu honek, eta bueltan-bueltan, ebatzi dot neuretik heltzea.

Hamar urte baino gehiago pasau dira orduko lanbidea itxi eta artzain eta gaztaigile ofizioen alde egin nebanetik. Orduan ez neban pentsau, inondik be, lanbide honek hainbeste geruza izango ebazanik. Oindino gitxiago, azken geruza horrek bihotzeraino egingo ebala bidea.

Urteen porasuz bihotza ardi-uletan bildu jota, eta ez dau hobia itxi gura. Horretan topau dau etxea, eta odolaren gorriak tintatu dau haria, hariak bihotza edurtu dauan maitasun beragaz. Hain dira sendoak hareen artekoak, ze, artzainaren bihotzak ez daua ulertzen munduan egoteko beste modu bat. Ez da artalde baten jaubea; bera da artaldekoa.

Ardien begiak eta belarriak jantzen ditu mundua jaso eta ulertzeko; horregaitik daki taldearen ezinbestekotasunaz, kolektiboaren beharraz. Badaki, salbazinoa, etortekotan, errazago etorriko dala batasunetik; ez, ostera, norbanakoen igesaldietatik. Horregaitik, besteak beste, ez dau ulertzen artaldearen funtzionamentuagazko dagoan mespretxua. Zelan ulertu, bada, jakinda, gehienetan, bakarkako igesaldiek dakarrezala banan-banako heriotzak?

Artaldeagazko mespretxuak talka egiten dau artzainagazko goresmenagaz. Zelan ulertu, barriro be, gitxiesten dan artalde

horren parte dan batentzako laudorioak? Zelan artaldearen zatitzea? Eta artzainaren alde heroiko eta bukolikoa?

Izan be, zer dauka heroikotik edo bukolikotik artzain izate honek?

Akaso, heroismotik izan leiken apurra ekarriko deutso lurraren eta bizitzaren kontra hain gogor jotzen dauan kapitalaren makineria herdoilduak. Izan be, Euskal Herri industrializauak eta tekno-optimistak, saiatu bada be, oindino ez dau lortu artzaintzak, esentzian, daukan askatasun sena zanpatzea. Ha-ta guzti be, ezin ahaztu norabide horretan pausu handiak emon dituala; gu geu be enpresariak garala sinisteraino.

Bukolismoaren errastua ez deusat topatzen gure ofizio honeri –eta, mesedez, ikusten deusana joan daitela urtebetez artalde bategaz bizitera–; ez bada, beste edozein bizimodugaz gertatzen dan moduan, bizitzagaz bat egite horretan, norberak eginiko aukeraketeari zentzua ikustea.

Puntu honetara helduta, artzainak kezkatzen dau sistemaren esutuei eustea heroismoz janzteak eta sistema bera eraisten ez saiatzeak. Era berean, tristea egiten jako artzainari utopiaren mailara igotea personak munduan egoteko ereari zentzua topatzea; eta munduagaz bat egiteko ez sentitzea ez askatasunik ez indarririk, ezta senaren errasturik be.

Seguru asko, ardi-uletan bizi dan bihotzari artzaintzari eusteko indarra eta patxadea etorriko jakoz ardiakaz eta lurragaz biziteak dakarzan pozetik eta askatasunetik, besteak beste. Munduko txoko jakin baten asmatu daua-lako, munduagaz biziten, artalde baten babesean, bakean.

Halaxe espero dau datozen urteak be bizi, ardi-uletan bilduta.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agjiaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LIII). Kale berbakunea sustatu guran

UDAGOIENA

- Hi! Fresko **habil** gero!
- Nik **etxe**koat hotzik!
- Baina manga laburrean eta praka laburrakaz ibilteko besteko beroa **dekok** ala?
- Oindino udan **gaxak** bata!
- Bai zera! Udagoiena lehengo domekan hasi **zoan**!
- Demonin trua! Egia **dok** bata!
- Hik **dekok** meritua. Jente guztia katarroa dala eta mokoa dala eta hi bero!
- Ze egingo **jotseat** ba!
- Bueno hi! **Segidik** holango osasunagaz!



LUMATUTEN



CALARA LUJA AZPIRI

Zorrak

Orokorrean malgua izatearen alde nagoan arren, badago alderdi bat zeinetan nahiko zorrotza nazen: "Dirurik ez badaukazu zeozer erosteko, ezin dozu erosi". Hau da niri irakatsi deustena etxean eta beti pentsau izan dodana. Prezioa ezin badot ordaindu, diru hori izan arte itxarongo dot (etxebizitzaren salbuespenagaz, jakina).

Baina azkenaldian salbuespen hori baino askoz gehiago dagozala dirudi: kotxeak hamar urtetan erostea bultzatzen da, etxea barrizatzeko lanak zure aurrekontuaren bikotxagaz proposatuten dira, baina ez kezkatu "finantzau daiteke". Eta finantzau gura ez badot? Zerbitzua gura badot, gero zenbat denporan eroan behar dot zor hori bizkar gainean?

Ez dakit zuei, baina niri sekulako ansiedadea sortzen da lan barik geratzen banaz eta autoren enpreseari oindino 20.000

euro zor badeutsadaz? Nondik aterako dot diru hori guztia, magia egin behar dot?

Ulertzen dot, ha-ta guzti be, zergaitik eskaintzen diran finantziario aukera honeek guztiak eta aukera ona izan daitezke osterantzean lortuezinak izango litzatekezan produktu edo zerbitzuak eskuragarri egiteko. Dana dala, susmoa daukat plan honeek askotan, lagunduteko baino, dirua aterateko dagozala. Interesak dirala edota diruaren depreziazioa dala-ta, azkenean gertatzen dana da kotxe hori edo etxe barrizatzeko hori gero eta urrunago geratzen jakuzala.

Oin dala gitxi entzun neutsan tipo bateri bere senide batek, 40 urte gaz eta ume txiki bategaz 280.000 euroko etxea erosi ebala, eta umeari zorra herentzian itxi beharko eutsala inoan txantxetan. Txantxa bat izan zan, bai, baina lan merkaduaren eta diruaren balioaren bilakaerea ikusita, zer beste bide egongo da zor hori kitatzeko? Zer egin beharko dau, magia?

ZERTZEAN



Bisean Bis (I)

KARLOS ARETXABALETA

Laztana nirea! Zelan zaude? Zelan bidaia? Luze egin zaizu? Pozten naiz oraingoan laburragoa iritzi badiozu. Eta eskerrak norbait aurkitu duzun honaino etortzeko. Aitorren gurasoekin etorri zara? Pozten naiz, eman goraintziak nire partez Eva eta Luixi. Ulertzen dut bai, autobusa arrunt nekeza egiten zaizu hainbeste urteren ostean. Ez pentsa, gogoan eduki zaitut herritik irten zarenetik. Tira, ez dut zehatz-mehatz jakin noiz abiatu zareten, baina bart arratsean irtengo zinetelakoan nengoen. Erreleboren bat emango zenion Luixi, ezta? Aitorrek dio aita zahar eta nagusi ikusten duela, eta ez du nahi gurasoek kotxea har dezaten. Bestela, badakizu zer? Ezin izan dut zeure aurpegitxo azken hogeita hamar gau eta egun hauetan kaskotik kendu. Joder, zeure falta itzela izan dut azken hilabeteetan. Fuerte nago, bestela, baina zeuk baino ez duzu nire itxaropena elikatzen.

Kideekin elkartu ohi naiz, txaboloan eta jantokian, baina ez guztiekin. Izan ere, presozainek aldiro aldazten gaituzte moduluz gehiegi bildu ez gaitez; hemen Sevillan eta Alacanten baino sarriago. Zaharrak berri, lazтана. Antolakuntza eta inkomunikazioa ez dira adiskide onak.

Oraingoan ezin izan dut ekonomatoan askorik lortu, baina tira, tartetxo honetan mokadu bi jateko beste badugu, ezta? Txaboloko kide berriak marrubi goxoak lortu dizkit. Gogoan duzu zer nolako bazkariak prestatzen zizkigun nire aittak baserrian? Txapelenea, horixe ba! Ez duzu baserriaren izena ahaztu, gero! Lasai, bueltatuko gara egunen batean. Gustura jarriko nintzateke berriz ere tamainako indabada baten aurrean. Aste honetako otorduak ez dira apartekoak izan, baina tira, beteranoek alboko moduluetan txarrago jaten dela diote.

Jaso nituen, bai, lehengo astean igorri zenidan paketea –arropak, kamisetak, liburuak...– eta gutuna, argazkiekin batera, noski; Aner eta Anixe izugarri koskortu dira azken hiru hilabeteetan. Gogotsu daude Gabonetan honaino etortzeko? Sikiera haiekin lau ordutxo pasatu ahal izango ditut. Dena den, ez dakit, ea bidaia ez zaien luzeegia iruditzen, oraindik oso txikiak dira. Horren beldur naiz, ea ez ote duten berriz ere aita bisitatzera etorri nahi izango. Ez, ez da ideia txarra Luciaren etxean egun batzuk egitea. Aurrekoan polito hartu zintuen, ezta? Umeak gustura dauden artean, denok ongi. Gainera, hemen, hegoaldean eguraldi ona izango duzue. Eskerrak zure unibertsitateko lagunei... lastima nik "neure mundutik" gehiago irten ez izana.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Euskera maite dogu. Horixe izan zan igorretarren mezua Igorreko Inbiu egunean. Maitasuna. Esango neuke alkarrenganako dala maitasun hori: Igorrek euskera maite daua eta euskerak Igorre. Ez dala ezinezko maitasun bat, garatu daitekena baino.

Bildur barik eta lotsa barik atera dabe maitasun hori lau haizetara. Jasota geratu da argazki eta bideoetan, munduan zabaltzeko. Oin maitasun hori bizi behar da, aske. Euskera, aske maite eta euskeraz aske bizi.

Maitasun bat bizitea ez da erraza izaten. Gauza guztietan dagoz hierarkiak eta goian dagozanek beti ipinten deutsez trabak behakoei. Maitasunak ezin dau dana gainditu, baina indarra emoten dau.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Goider 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beerredaktor@gmail.com

agoa
hagin klinikak

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igoire-Bidakoa
T. 94 631 50 39
Ikalegata Zerbitzuak 101
R.P.S. 31/06

ARRATIA

AUMk berbaldi ziklo bat antolatu dau menpekotasuna daukien personen zaintzaileen autozainketea bultzatzeko

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) prestakuntza berbaldiak antolatu dauz menpekotasuna daukien personak zaintzen dabezan senideentzat, zaintzaileen artean autozainketako ohiturak bultzatzeko. Urri bigarrenaren zehar izango dira, eskualdeko udalerrri guztietan, eta sarrerea librea izango da.

Erredakzioa

Berbaldiak jente guztiari zuzenduta dagoz, eta, batez be, menpekotasuna daukien personak zaintzeaz guztiz edo modu parzialan arduratzen diran zaintzaileei, zaindu beharreko personaren adina edo menpekotasun maila kontuan izan barik. Hainbat alderdi landuko dira, esate baterako, menpekotasun motak eta ezaggarriak, zaintzaileen beharrak eta bakotzak bere burua zaintzeako ohiturak garatzearen garrantzia.

Izan be, Arratiako eskualdean, menpekotasuna daukien perso-

nen zaintzea batez be familiari jagoko, gehienbat andrazkoei. Askotan, denporeak aurrera egin ahala, zaintzaileen denpora librea-ri, aisialdiari eta autozainketeari emondako uneak murriztu egiten dira. Horrek eragina izan daike harenen gizarte arloko hartu-emo- netan eta ondoizate fisiko, psikiko eta emozionalean. Horregaitik, oso garrantzitsua da zaintzaileari lagundutea bizi-kalitatea hobetu- tuko dabenean estrategiak emonez. Berbaldiak, informazioa emoteaz gainera, zaintzaileen artean auto- zainketako teknikak eta trebetasu- nak eskuratzen lagundu gura dau.

Berbaldi ziklo horren osogari lez, zaintzaileei autozainketarako teknikak eta estrategiak irakatsiko deutez an ikastaroa antolatuko da. Ikastaroak sei saio izango ditu, eta zemendian eta abenduan egingo da.

Egutegia

Berbaldiak Sasoi-Tercera Edade- k emongo ditu.

Urri bigarrenaren 7an, aste- lehenean, Zeanurin berbaldia, 18:00etan, Jubiladuen etxean izan- go da. Eguaztenean, hilak 9, ber- baldi bi egongo dira; bata Lemoan eta bestea Diman, 17:00etan, Ko- txepin Kultur Etxean eta 18:00etan, Jubiladuen etxean, hurrengo h- rrengo. Hurrengo asteko martitze- nean, hilak 15, Bediako liburategian izango dira hizlariak 18:00etan, eta eguaztenean, Arantzazuko Kultur- gunean, 18:00etan.

Urri bigarrenaren 17an eta 22an, bina herritan izango dira berbaldiok. Hilaren 17an, egue- na, Ubideko jubiladuen etxean 17:30ean eta Arteako Kultur Etxean 18:00etan; eta hilaren 22an, Igorreko Kultur Etxean, 17:00etan eta Areatzako udale- txean 17:30ean, hain zuzen be.



UBIDE

Lopena inauguratu dabe Ubiden, herritarrek gozo egoteko espazioa

Hiru gelak osotuten dabe Lopena espazioa: ludotekeak, ikasgelak eta erabilera askotako gelak.

Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzeagaz, ludotekea barriztau, herrian ez egoan ikasgela bat sortu eta aire barri bat emon deute sie erabilera askotako gelari. Inaugurazioa urri lehenengoaren 27an izan zan. Lehengo ludotekea egoan eraikin berean dago Lopena; eta lehen Ludoteka deitzean bazan be, izena aldatu gura izan deute sie "ez dalako ludoteka bat bakarrik. Idaz-

kariari galdetu geuntsan ze izen daukan eraikin honek eskritoretan eta izen hori jarri deute sugu" azaldu deute so BEGITUri Irati Urien zinego- tziak. Sasoi baten eraikin horretan zine areto bat egoan zan.

Herritar guztientzako espazioa

Gela handi bat eta txiki bi dagoz. Gela kopurua mantentidu egin da baina zehaztu egin dira euren fun- zioa eta erabilgarritasuna. Ludote- kea ez da umeentzat bakarrik "edo-

nork erabili leike. Ludoteka esaten dogunean, umeengan pentsetan dogu, baina hona etori daiteke 60 urteko jentea, esate baterako, parti- sean, liburu bat leiduteko edo dana dalakoa egiteko. Mahai bat dago horretarako" dino Urienek.

Ikasgelan lau personentzako le- kua dago. Erabilera askotako gela erabilteko, herriko alkarteek eukiko dabe lehentasuna, baina edonork erabili ahal dau. Araudia eta giltzak udaletxean dagoz eskuragarri.

ARTEA

Bertso-afaria, magia, kontzertuak eta beste jarduera asko Artean hilaren 4 eta 5ean

Herriko Bentan, Faxismoaren kontrako txupinazoa lemapean, Herriko Kultur Txupina izeneko jaiak antolatu ditue urri bigarrenaren 4-5 bariku-zapaturako.

Erredakzioa

Musikea, bertso-afaria, magia eta txapelketak ez dira faltauko Arteako herriko plazan. Bertako artisten lanen eta Arratiako argaz- ki erakusketek osotuten dabe egitaraua.

Barikuan, 18:00etan, pre- goia irakurri eta jai ei hasikerea emongo deute sen txupina botako dabe. Ostein kalejire egongo da Orkresta Elektrotunagaz eta 21:00etan, bertso-afaria. Ber- tsoak kantaiko dabez Jone Lar- rinagak, Izar Mendigurenek eta Itsaso Paiak eta gaiak emoten Alasne Artetxek jardungo dau. Afaria Eguzkiolak antolatuko dau eta ateraten diran irabaziak alkar- te honen jardueretarako izango dira. Bertso-afariaren prezioa 20 eurokoa da; soldatabakoentzat 12 eurokoa. Izena urri bigar- renaren 2ra arte emon daiteke herrikobenta.arte@gmail.com helbidean edo 94 602 88 55 telefonoan.

Zapatu eguerdian magia; iluntzean, kontzertua

Zapatuan, hilak 5, eguerdiko



12:00etan, magia saioa egongo da ume eta nagusien gozame- nerako. Arrastian, 17:00etan, Igel Txapelketea eta 18:00etan, Mikelen "Cochecitos de mierda" lasterketea.

Iluntzeko 20:00etan, Las Mos- kas Retrompeteras taldearen kontzertua egongo da. Talde hau Xabi Flores eta Mikel Lasaren omenez sortu zan eta bost abes- tiko EP bat dauka kalean. Ostein, 21:30etik aurrera, Les Sauvage DJ-ak ipiniko dau jentea jantzan.



Ordutegia

Asteleheneetik domekara jai egunak barne, 08:00etatik 21:00etara egongo da espazio hau zabalik. "Ez da izango beste ludoteka batzue- tan egoten dan ordutegia. Ubiden

ez dago beste espazio itxirik eta badakigu danok herria hotza dala edo eguraldi eskasa egiten dauala askotan. Gura doguna da herriko jenteak espazio bat eukitea gozo egoteko" dino zinegotziak.

ARRATIA

Komunikazio graduko ikasleentzat praktikak eskaintzen ditu Errota Fundazioak

Komunikazio, Marketing edo Publizitate graduko 4. mailako edo masterreko ikasleentzako praktikak dira. Sare sozialak kudeatu, komunikazio estrategietan parte hartu eta komunikazio materiala sortu beharko ditu ikasleak. Curriculum-a urri bigarrenaren 27a baino lehen bialdu behar da info@errota.eus helbide elektronikora.

Erredakzioa

Errotak plan estrategiko barria definitzen hasi behar dau urtailean, eta plan estrategiko horren barruan

komunikazio estrategikoa egongo dala azaldu deusie BEGITURI Errotatik. Komunikazio estrategia horregaz, Errota zer dan eta zer egiten dauan jakinarazo gura deuse

Arratiako enpresei eta norbanakoei.

Plan estrategikoaren prozesua hasi bitartean eta komunikazio estrategiko hori definitu bitartean, Errotako koordinatzaileari eta teknikariari lagunduteko, praktiketako nonor hartzea ebatzi dabe. "Persona horrek, gugaz batera, sare sozialak kudeatuko ditu, webgunea berrantolatuko eta plan estrategikoan parte hartuko dau komunikazio estrategia definituz. Horretarako abiatuko dogun prozesu parte-hartzailean eta Errotaren ekintzetan be hartuko dau parte".

Arratiakoa izatea baloratu da Praktikak EHU Euskal Herriko Unibertsitateagaz adostu ditu Errotak, baina Arratian be zabaldu gura izan dabe deialdia, arratiarren bat komunikazioa, marketing-a edo publizitatea ikasten badabil, arratiarra izan daiten Errotan praktikak egiten dauzan pertsona. "Horregaitik zabaldu dogu, Arratiako baten bat badago EHU edo beste unibersidade baten ikasketak egiten bialdu dagian curriculum-a".



Errota Fundazioan PRAKTIKAK

Zeren bila gabiltza?

- Komunikazio, marketing edo publizitate graduko 4. mailako edo masterreko ikaslea

Zer egingo duzu?

- Sare sozialen eta webgunearen kudeaketa
- Komunikazio estrategian parte hartu
- Komunikazio materiala sortu

Gaitasunak

- Euskara lan hizkuntza
- Proaktiboa
- Sortzailea
- Arduraduna
- Egokitzeko gaitasuna

Arratiakoa izatea baloratuko da

Bidali zure Curriculum Vitae urriaren 27a aurretik:
info@errota.eus

ARTEA

Eraso matxistak salatu eta feminismoa aldarrikatzeke ekitalditxoak egin eban Kafrangak Andra Taldeak Merkarterean

Erredakzioa

Aurten, etxetik hur, Euskal Herrian, hiru andra hil ditu indarkeria matxistek; eraso, jazarpen eta abar, kontau ezinak dira. Hori dala-ta, Arteako Kafrangak Andra Taldea, urri lehenengoaren 21ean, Merkarterea egunean, gauzez, agerlekura igon zan, "Erasoen aurrean, antolakuntza feminista" pankarteagaz, antolatzaileen premia adierazoteko.

Komunikadua, indarkeria matxistea edonon topatzeak dakarren nekez berba egiten hasi zan. "Barriro be Euskal Herriko txokoetatik notizia larriak jaso doguz. Barriro be haserrea eta nekea sentidu dogu. Barriro be erasoak, jazarpenak, bortizkeria... Barriro be indarkeria matxistea!" adierazo eben taldekoek.



Jarkera horren oinarria indarkeria dala esan eben. "Indarkeria gizarte honek gizonen sozializazioan inprimiduten dauan ezaugarria da. Gailenduten dan maskulinitatea da podere hartu-emonak eregiten dauzana eta bortizkeria gorai patuten

dauana". Horregaitik, indarkeriagaz amaituteko gizartea aldatu behar da eta horretarako "andron kontrako indarkeria salbuespenetik kategoriaz izendapenera" eroatea eta "maskulinitate hegemonikoa deseregi eta arrakalatu" aldarrikatu eben.

DIMA

Sanfreskuak ospatuko dabez Indusin hilaren lehenengo bariku-zapatuan

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 4an, Asisko San Franziskoren eguna da eta Dimako Indusi auzoan jaiak ospatuten dabez. Aurten, barikua da eta San Fresku egunerako eta hurrengo egunerako prestatu dabe jai-egitaraua Indusiko Jai Batzordeak eta Dimako Udalak.

Jana, edana eta musikea ez dira faltako auzoaren artean disfrutetako. Ezta txapelketak baxotxari jagokon sariakaz. Holan, Briska eta Tute Txapelketetako irabazleek 50 euro eta lora bat jasoko dabe sarizat. Bigarren, hirugarren eta laugarren sariak be egongo dira. Baba Lapiko Lehiaketan, diru aldetik sari baxinak egongo dira baina irabazleak lapiko bat be izango dau sarizat. Berakatz-zopako irabazleak barriz, 40 euro eta kazulea; Tortillakoak, 40 euro eta zartagina eta epai-mahaiaren arabera ogizko tostadarik onenak egiten dabenak, 40 euroez gaine-

ra platera izango dau sarizat.

Urri bigarrenak 4, barikua San Fresku eguna

12:00etan, mezea.
13:00etan, barauskarria.
17:00etan, Briska eta Tute Txapelketak.
19:00etan, txitxi-burduntzia.
21:00etan, Eingoren emonaldia.
22:00etan, txokolatea.

Urri bigarrenak 5, zapatua

12:30ean, Dimako Gazte Barri jantza taldearen emonaldia.
14:00etan, Baba Lapiko Lehiaketa.
14:30ean, bazkaria; bazkalostean bertsolariak: Ibai Amillategi eta Aissa Intxausti.
17:00etan, umeentzako ekintzak.
19:30ean, Berakatz-zopa, Tortilla eta Ogizko Tostada Lehiaketa.
20:00etan, afaria; ostean, bingo girotua.
22:00etan, Jainaga eta Narbaizagaz erromeria.
22:30ean, txokolatea.
23:00etan, zozketea.



IGORRE

Baserriko produktuak eta herri-kirol erakustaldia Igorreko Garbe auzoan

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 13an izango da aurten Garbeko Azokea. Hogeta hamaika ekoizle egongo dira Garben eta ortuariak, gaztaia, ogia, pastelak eta konserbak salduko dabez. Artisauek be egongo dira tartean euren produktuak eskaintzen.

Urtero lez, herri-kirolak ez dira faltako Garbeko azokan. Aurten, Lemoako Julen Mendieta eta Dimako Xabier Garcia "Utxu" azkolariak egingo dabe erakustaldia 12:00etan, baita Jose Martin Bustinza "Tubi"k, lasto altxatze eta lasto botatzeko puntako kirolariak be.

Garbeko azokea, bailarako zaharretakoa da. 1975ean sortu



zan eta aurtengoa bere berrogeta laugarren edizinoak da. Baserria auzora ekarteko asmoagaz sortu zan eta helburu beragaz jarraituten dau.

BEDIA

Usansoloko ospitalea eta Bedia lotuko dituan Metro zatiak Ingurumen Sailaren onespina jaso dau

Metroko 5. linearen zati hau lizitazinora aterateko, falta zan atzen pausu inportantea zan Eusko Jaurlaritzaren ingurumen onespina. Proiektuak, Bediako konexinoa ospitaleagaz, Galdakaogaz eta Bilbogaz hobetuko dau.

Erredakzioa

Zatiak 1.611 metro izango ditu eta ia osorik lurpetik joango da eta holan, Eusko Jaurlaritzak egindako ingurumen eraginaren gaineko adierazpenaren arabera, "ez leuskio eragingo lehendik dagozan ibilguei, intereseko landarediari edo fauneari".

Bediarako ona dala uste dau Aitor Sorriketa alkateak. "Zerbitzua martxan ipinten danean, Usansoloko ospitalera trenez joateko aukerea izango dogu; baita Galdakaoko erdigunera joateko be. Gainera, horrek metroagaz

konexinoa hurreratuko deusku. Beraz, Bediako konexinoak hobetuten dira nire ustez" azaldu deutso Sorriketak BEGITURI.

Usansolon desadostasuna

Usansolokoak barriz, ez dagoz proiektuagaz ados. Izan be, Usansoloko Euskotren geltokia kendu eta ospitale ondoko Labea auzora aldatzea dakar proiektu honek, geralekua herrigunetik kanpo itxiz. Hori dala-ta, Usansolokoek, Geltokia Erdigunearan plataformea sortu eta burrukan dihardue Usansoloko erdigunearan Metro geltokia ipinteko.



Argazkia: Metro Bilbao.

AREATZA

Dolu bat eta dolu bi liburuaren aurkezpena, azokea, Arantzarte, Areatzako Banda eta erromeria Euskal Jaian

Urri bigarrenaren 12an izango da aurten Euskal Jaia eta nekazaritza eta artisautza produktuen merkaduagaz hasi eta erromeriagaz amaituko da. Inguruko ekoizleak, artisauak eta euskal tradizioa eta musikea dira egun honen ardatza.

Erredakzioa

Egun horretan jenteari baserritar jantzita joateko deia egiten deutse Udaletik. Aspalditik dator ohitura hau eta Nerea Zuloagaren Marimailegu proiektua dala-ta hainbat herritar janzten dira egun horretan berak egindako erropakaz atzen urteotan.

Bezperan, Nerea eta Idoia Zuloaga Martinezen, *Dolu bat eta dolu bi*. *Zauriak daiguzan josi* liburuaren aurkezpena egingo da komentuan.

Zapatuan, merkadua, Nekazaritza eta Artisautza produktuen Azoka, goizeko 10:00etan zabalduko da, 25 postu inguru aurreikusten dira, eta taloak be egongo dira salgai. Ostean, bere 50. urteurrena bete dauan Arantzarte jantza taldeari errekonozimentua egin gura jako eta emonaldia eskainiko dau plazan 13:00etan eta, 14:00etan, handik bertatik urtengo da kalejiera Areatzako Bandagaz.

Herri bazkaria be egongo da 15:00etan. Bazkarirako txartelak salgai dagoz Aldamin, Batzokia, Bixer, Eguzki, Hagina, Ixua eta The Quiet Corner tabernetan. Menu bi dagoz aukeran 20 euroko prezioan: ondo etorri gildea, marmitakoa, oilasko errea eta pantxinetea; edo, humusa eta gazpaxoa, txanpiak berakatzagaz, seita-

na, gari-zainzuri eta piper gorriakaz eta pantxinetea. Ogia, ura, kupeleko sagardaoa, urteko ardaoa eta kafea be badagoz prezio barruan.

Bazkalostean, kalejiera egongo da barriro be; oingoan Orkresta Elektrotunagaz; eta afari-legea egiteko berakatz-zopea 20:30ean. Atzenik, 21:30ean, erromeria egongo da Zutik taldeagaz.

Liburuaren aurkezpena

Bezperan, zuloagarren, *Dolu bat eta dolu bi*. *Zauriak daiguzan josi* liburuaren aurkezpena egingo da komentuan. Liburu hau dolu bikotz baten testigantzea da eta Areatzako Udalak argitaratu dau. Hasikeran Nerea eta Idoia Zuloagaren lana zan, baina egite prozesuan jente askok hartu dau parte; batez be

Areatzakoak. Testuak Nerea Zuloagak egin ebazan eta testu horreetatik Mikel Etxaburuk 11 poema. Poema horreek kanta bihurtu ebazan Zuloagak Peio Artetxeren laguntzeagaz, poemen gaineko marrazkiak Jon Artetxek egin dauz; azaleko eta kontrazaleko irudiak, Izaro Mazok. Grabatukeran, musikari batzuk be sartu ziran proiektuan, Irina Alvarez, Jon Gardoki, Asier Garcia, Gaizka Peñafiel eta Peio Artetxe.

Abestien grabaketa, nahasketa eta masterra Aritz Ontalvillak egin ditu; herritarren argazkiak Jose Atxak, Imanol Elexpuruk, Esther Etxezarragak, Iñigo Iruarizagaz, Libe Ormazabalek, Olatz Ortuondok eta Amaia Zuluagaz; maketazioa: Iñigo Iruarizagaz eta laguntzaile beharretan Argi Etxezarraga, Itziar Etxezarraga, Martin Ortega Muro eta Mirari Petralanda egon dira, atzenik Miren Madariaga izan da hizkuntza aholkularia.

Herriko jente askok be hartu dau parte argazkietan "liburuan pilo bat argazki agertzen dira 400 persona inguru pasau diralako proiektutik" azaldu deutso BEGITURI Zuloagak.

Aurkezpena 19:30ean komentuan izango da. "Oindino ez daukagu guztiz lotuta, baina bideo bat egin dogu (liburuaren sortze prozesu) hau azalduz eta aurkezpenean bideo hori emongo dogu, baleiteke kanta batzuk zuzenean jotea be" dino Zuloagak.



ARANTZAZU

Hilaren 11tik hasita, astegoien osoan jai giroan murgilduko da Arantzazu

Erredakzioa

Udagoienean be jaiak ospatuten dauz Arantzazuk, sanfaustoak. San Fausto eguna urri bigarrenaren 13an da, aurten domekea, eta astegoien horretan, barikutik hasita, ospatuko dabez jaiak herrikoan. Scape Room-a, merkadua, mendi ibilaldia, musikea, zinea, karoakea... danon gustuko jaiak prestatu ditue Arantzazun.

Urtero legez, sanfaustoko jai egitarauaren barruan Arantzazuko

Mugari Bira mendi ibilaldia egongo da. Martxa honetako ibilbidea, 9 kilometro inguruko ibilbide zirkularra izango da. Partaideak Arantzazuko plazatik abiatuko dira 09:00etan eta hiru bat orduren bueltan Arantzazuko plazan amaituko dabe bidea. Parte hartzeako ez da izenik emon behar, aitatu-tako egun eta orduan plazan agertutea nahikoa da. Industrialdean hamaiketako egongo da partaideentzat Arginatx mendi taldeak antolatuta.

Urri bigarrenak 11, barikua

18:00etatik 20:00etara, Mari Scape Room-a nagusientzat Kulturgunean. 21:00etan, Papa Jon Band taldearen kontzertua Herriko Tabernako terrazan.

Urri bigarrenak 12, zapatua

09:00etan, Jose Luis Atutxa Mugari Bira. 14:30ean, baba-jan herrikoia. Txartelak salgai hilaren 10era arte, Herriko Tabernan eta Montero tabernan. Nagusiek 10 euro; umeek

5 euro. 18:00etan, musikea plazan. 18:00etatik 20:00etara, Mari Scape Room-a gazteentzat Kulturgunean. 22:00etan, karoakea Herriko Tabernan.

Urri bigarrenak 13, domekea

10:00etan, Arantzazuko txistularien dianea. 10:30ean, mezea. 11:00etatik 15:00etara, Gure 4. Azoka. Arratiako artisauak, ehun eta erropa barriak eta bigarren eskuko musikea eta liburuak. 12:00etan, Walas magoa. 13:00etan, Bilbao anaiakaz triki-poteoa. 17:00etan, ume eta gazteentzat

pelikulea Kulturgunean. 19:00etan, txokolata Kulturgunean.



BEGITUREN OPORRETAKO ARGAZKI LEHIAKETE

Miren Begoña Idigorasek Zeanuriko Ipiñaburun egindako argazkiak eroan dau lehenengo saria

Bigarren saria, Eneritz Atutxak Singapurren ateratako argazkiarentzat izan da. 57 argazki aurkeztu dira guztira, mundu zabalean zein Arratian bertan egindakoak. Danek, naturegazko konexinoa, jentegazko hartu-emona edo bidai istorio bat kontetan dabe. Irabazleak, finalistak eta beste batzuk dakarguz orrialde honeetara.



Miren Begoña Idigorasek Ipiñaburun ateratako argazki irabazlea.



Eneritz Atutxak Singapurren ateratako argazkia. Bigarren saria.

"Ipiñaburuko ardi-txakur lehiaketako momentu bat jasoten dau argazki irabazleak. Aurtengoa, hemengoa eta errealidadea izan arren, beste sasoi bateko uda dirudiana, iraganetik edo margolan kostunbrista batetik erreskautakoa" epaimahaikoen arabera



Aldamin. Onintze Petralandaren irudia.



Siem Riep argazkia. Garazi Santos.



Caños de Meca. Níle Baraiaetxaburu Atxa.




Aitor Arnaizek Gorlizen ateratako argazkia.



Bromo sumendiaren argazkia. Ivan Gomez.



Silverio pututua joten. Maialen Gaztelu.



Berbaldiak

MENDEKOTASUNA ETA ZAINZAILAAREN AUTOZAINKETEA

Mendekotasuna daben personak senideek zaintzen dabez batez be. Askotan, zaintzaileek mendekotasuna dauen personaren zaintzan jarten dabe arretea, eta horrek murriztu egiten dauz haren denpora libre, aisialdia eta bakotzak bere burua zaintzeko uneak. Horrek eragina izan dalke haren gizarte arloko hartuemonetan eta ongizate fisikoan, psikikoan eta emozionalean. Oso garrantzitsua da zaintzaileari laguntzea eta haren bizi-kalitatea hobetuko daben estrategiak emotea.

Sarrera librea



Urriak 7

18:00 Jubilauen etxea | (ZEANURI)

Urriak 9

17:00 Kulturetxea | (LEMOA)
18:00 Jubilauen etxea | (DIMA)

Urriak 15

18:00 Liburutegia (BEDIA)

Urriak 16

18:00 Kulturgunea (ARANTZAZU)

Urriak 17

17:30 Jubilauen etxea | (UBIDE)

18:00 Kulturgunea | (ARTEA)

Urriak 22

17:00 Kulturetxea | (IGORRE)
17:30 Udaletxea | (AREATZA)



ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanakoa · Kontularitza
Askatasun 26, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbelaide@gorbelaide.com

Kili-Kili
Ampo eta Puztuak
Lahendakal Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 81

TXIN-TXIMINI

- Tximiniaren garbi-ikuzia
- Ikuskapena telebista kamarakaz
- Txosten teknika
- Instalazioen erabarritzea eta mantenimendua

Telefona 657 77 94 58
info@txin-tximini.com
TXIN-TXIMINI.COM · Bizkaia

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es


HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Beluzen daga jabetza
-Salmentan zein alokairuan
Lurrak (irakitea, landat, basok...)
Etxebizitzak (puzak, baserak, etxek...)
Garajeak
Laneri komertzialak
Pabiloiak...
-Bolonarioak

Beluzen daga proiektu
-Erakin berriak erakitzeko
-Eneformak
-AATipulak-proiektuak
-Borne diseinua
-CEE eta IEE-ak
-Hirigintza oharikarizta
-Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Urdulabar Agirre 23, 48100 - Igors
Agirretan 14, 48101 - Igors
0107110009@gmail.com
arratia@arratia.com



GUERE 4. AZOKA ARANTZAZU

URRIAK 13, DOMEKA

11:00-15:00



*ARRATIKO ARTISAUAK, EHUN-ERROPA BARRIAK
ETA BIGARREN ESKUKO MUSIKA ETA LIBURUAK*

10:00ETAN ARANTZAZUKO TXISTULARIEN DIANA

12:00ETAN WALAS MAGOA

13:00ETAN BILBAO ANAIK TRIKIPOTEOAN



ARANTZAZUKO JAI BATZORDEA

EURIA BADA FRONTOIAN

Arantza Urri lezetxoan
Gure
ikastetxeak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



XITIV GARBEEKO AZOKA 2024 IGORRE

URRIAK | **13**

10:00

AZOKAREN IREKIERA

12:00

HERRI KIROL ERAKUSTALDIA
(UTXU, MENDIATE ETA TUBI)

13:00

SARI BANAKETA



IGORRE

bbkE



Garbeko
Azoka
Elkartea

EUSKAL JAIA 2024

AREATZA

Urriak 11, barikua

19:30ean, *Dolu bat eta dolu bi. Zauriak daiguzan josi* liburuaren aurkezpena komentuan.

Urriak 12, zapatua

10:00etan, Nekazaritza eta Artisautza Azokea.
13:00etan, Arantzarte Dantza Taldearen emonaldia plazan.
14:00etan, Areatzako Bandaren kalejirea herrian zehar.
15:00etan, bazkaria.
18:00etan, Orkresta Elektrotunagaz kalejirea herrian zehar.
20:30ean, berakatz-zopea.
21:30ean, erromeria Zutik taldeagaz.

Urriak 13, domekea

12:00etan, *Errege Bidetik Arratiako Tranbiara* ibilbidea herrian zehar, Angel Larreak eta Jon Urutxurtuk gidatuta. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

Urriak 20, domekea

12:00etan, *Del Camino Real al Tranvia de Arratia* ibilbidea herrian zehar, Angel Larreak eta Jon Urutxurtuk gidatuta. Ondarearen Europako Jardunaldiak. (Gazteleraz)

*Aurretik izena emon behar da udaletxean edo areatzakoudala.areatza@bizkaia.org helbidean. Leku-kopuru mugatua (30 lagun).



Ez onartu hau. Kanpoaldean itxitako trastez inguratutako edukiontziek zaildu egiten dabe bilketa eta gure kaleen irudi txarra emoten dabe. **Euki garbi Arratia.**



4 pausotan

- 1 Deitu **94 631 17 17** telefono-zenbakira, astelehenetik barikura (8:00 - 15:00)
- 2 Egon Mankomunitatearen deia zain, izan be, Mankomunitateak esango deutsu zein egun eta lekutan itxi behar dozuzan.
- 3 Bezperan eroan hitzartutako lekura.
- 4 Ezin badozu itxaron, itxi Igorreko Garbigunean.

Garbigunea

Premia badaukazu hondakinok etxetik kentzeko, zuzenean eroan zeinkez Igorreko Garbigunera; izan be, horreetaz gain, Mankomunitateak batzen ez dituan beste batzuk be itxi ahal izango dozuz: neumatikoak, obra-hondakinak, jostailuak, etab.

Tamaina handiko hondakinak

Itxi jagoken lekuan eta unean



ARRATIAN EZ DOGU HOLANGORIK GURA



Nik be bai!



ARRATIAKO VDALEN MANKOMUNITATEA



MENDIA



Gorbeia Suzien Skyrace lasterketako podiuma andrazkoetan.

Onditz Iturbe Gorbeia Suzien lasterketako podiumera igon da

Erredakzinoa

Onditz Iturbe lasterketari igorretarrak hirugarren egin eban (03:49:37) Gorbeia Suzien Merrell Skyrace lasterketan, Julia Font (03:45:39) eta Daniela Oemus (03:45:46) atzetik. Gizonezkoetan, Luca del Pero (03:00:25) irabazi eban eta Manuel Merillasek (03:01:28) eta Lorenzo Rotak (03:03:19) osotu eben podiuma.

Urri lehenengoaren 28an jokatu ziran Gorbeia Suzien Merrell lasterketak: Skyrace 32 kilometrokoa, International Skyrunning Federation-ek (ISF) antolatzen dauan Skyrunner World Series Munduko Txapelketako proba, eta 21 kilometrokoa, hain zuzen be. Atzen hau, Roger Comellasek (02:00:34) eta Dalia Alonsok (02:34:29) irabazi eben.

Hotz egin eban, euria be bai, eta aurreko egunetako euriak zirala-ta, bidea lupeztuta egoan, leku batzuk arriskutsu eginez. "Gorantza ondo joan naz eta beherantza, lupetzagaz kontuz bajatu naz, minik ez hartzeako. Uste dot inozko txarren egon dala, lupetz asko, momenturen baten euria be egin deusku, haize hotza..." adierazo eutsan BEGITURI Iturbek lasterketa amaitutakoan. Baina lasterketa gogorra izan arren, hirugarren egin eban Igorrekoak, eta "etxean" jokatu eta

jenteak emondako "bultzadeari" eskertuta agertu zan. "Eskerrak emon gura deutesdaz mendian egon diran danei. Azkenean etxean jokatzeko aho biko ezpatea da, baina jentearen bultzadea oso positiboa izan da" azaldu eban.

Ondo sailkatutako beste arratiarrak

Gizonezkoetan, Gorbeia Suzien Merrell Skyrace-n helmugara heldu zan lehenengo arratiarra Bediako Jokin Zabala Zamalloa izan zan, 33. eginda. Bediartzarrak 03:35:40eko denporea baino ez eban behar izan lasterketa gogor honen 32 kilometroak egiteko.

Hogeta bat kilometroko lasterketan, podiumean arratiarrak egon ez bazan be, sano postu onetan amaitu eben karrera hainbat arratiarrak. Izan be, gizonezkoetan, Aner Zuluaga Intxaurre igorretarrak laugarren egin eban 02:18:59 denporeagaz eta Markel Irigorri Alberdik, seigarren (02:20:34). Dimako Aimar Aldazabal be oso ondo sailkatu zan hamabigarren eginda. Andrazkoetan, lehenengo hamarren artean egon ziran, Zeanuriko Miren Otzerinjaregi Uriarte, seigarren eginda; Dimako Olatz Arce Larray, zapigarren, eta Zeanuriko Itsasne Bengoetxea Ugarte, zortzigarren egin ebana.



Gorbeia Suzien Skyrace lasterketako podiuma gizonezkoetan.

ARDI MOZTAILEAK

2026an, Zeelanda Berrian lehiatzea dauka helburu Euskal Ardi Moztaileen Elkarteak

Ardi-ulea moztea lanbidea izateaz gainera, kirola be bada eta ofizialtasuna lortuta, euskal ardi-ule moztailerek, 2026ko martian, Zeelanda Berriko Mastertonen jokatzeko dan Munduko Txapelketan parte hartu gura dabe. Horretarako 2025ean Euskal Herriko Txapelketa egin behar dabe eta han, makineagaz, artaziakaz eta ardi-ule kudeatzaile moduan sailkatzen diran modalidade bakoitzeko lehenengo biek, eukiko dabe aukerea mundukoa jokatzeko.

Erredakzinoa

Dimako Mikel Etxebarria moztaileren alkartean dago eta Munduko Txapelketan izan gurako leuke. Etxebarriak 19 urte daroaz moztaille lanetan mundu zabalera: Zeelanda Berrian, Galesen eta Eskozian, esate baterako.

Noz sortu zan Euskal Ardi Moztaileen Elkarte (EAME)?

Alkartera oin dala gitxi sortu zan. 2019an, Joseba Attardek proposatu eban munduko txapelketan Euskal Herri moduan parte hartu ahal izateko ofizialtasuna eskuratzeko. Asko galdetu eta gero, -gehienek esaten eutsien zoratuta egoala- proposamena aurkeztu eban, ingelesez, munduko kontseiluan. Espainiak eta Frantziak baiezkoa emon behar eutsien nazinoarteko lehiaketetan parte hartzeako eskaerari eta hasikera-hasikeratik baiezkoa emon eben. Baita beste nazino eta herrialdeek, Gales, Eskozia, Zeelanda Berria, Australia eta gainontzekoek.

Orduan hasi ginan landuten ze talde egongo ginan, nortzuk egongo ginan... eta alkartera sortu genduan aurrera egiteko. Facebookean Euskal Moztaileak izena daukan orri bat daukagu. Interesautu dagozanek kontaktatu dagiela gugaz.

Ardi moztaille asko dagoz Euskal Herrian?

Moztaileak asko gara, baina alkartean momentuan 20-25 inguru. Nazinoarteko lehiaketetan parte hartzeako 9 personako taldea behar da.

Nazino moduan joateko baldintza batzuk eskatuten dira. Baldintzetako bat da ardi erraza propioa eukitea. Euskal Herrian badago, latxa da. Kursoak be emon behar dira moztailleak trebatuteko eta epaileak be bai. Atzenik, txapelketa bat be euki behar da.

Euskal Herrian badago txapelketa bat, Uharte-Arakilen, Na-



Mikel Etxebarria.

farroan, urte askoan egin dana, baina txapelketa nazinoarteko araudiagaz bat etorri eta nazinoarteko epaileak izan behar ditu. Hori dala-ta, 2025ean, Euskal Herriko Txapelketa bat egitea pentsatu dogu nazinoarteko araudiagaz eta nazinoarteko epaileakaz. Horretara egokitzeko laguntzea eskatu dogu eta Eskoziatik bitan etorri dira kursoak emoten hona. Bagoaz. Gure helburua da 2026an, Zeelanda Berrian, nazino moduan lehiatzea.

Hor taldean zagozienok, danok zarie moztaille lanbidez?

Bai. Batzuek beste lanbide batzuek batera, baina gehienok, dedikazio osoa. Artzain munduagaz zerikusia euki arren, moztailleak ezin dira artzain izan. Hara eta hona ibiltzen gara, gure kanpaina martian hasten da, abuztura arte, eta ezin da artalde euki. Dedikazio osoa behar da. Taldean gogozan 25etik 20, horretara dediketara gara.

Batzuoi gatx egiten jaku hau kirol moduan ikustea eta ez lanbide moduan. Emoten dau herri-kirol izateko lanbidea hilda edo hiltzorian egon behar dala? Zelan dago ardi ule-moztearen lanbidea?

Hemen industria da indarra daukana eta lehenengo sektorea baztertuta geratzen da beti. Baina lehenengo sektoreak indar asko daukan herrialdeetan, Zeelanda Berrian, adibidez, ez da bakarrik lanbidea, kirola be bada eta gainera hango bigarren kirola: lehenengo errugbia eta bigarrena ardi-ule moztetea. Galesen, Eskozian, Ingalaterran... be indar handia dauka.

Euskal Herrian be ofizioak bizi dirau ardiei ulea moztu egin behar jakielako, bai ala bai. Ardia ondo egon daiten, moztu egin behar jako ulea, urtean baten behintzat.

Euskal Herrian nahiko ardi dagoz 20 moztaileri lana emoteko?

Euskal Herrian milioi bat ardi dagoz. Iparraldean 500.000 eta hegoaldean beste horrenbeste. Ardi-ule moztaille gehienak Nafarroakoak dira; Bizkaian 8 bat moztaille egongo gara; Gipuzkoan bi, eta Araban honetara dediketara danik ez dago. Nafarroan dagoz gehienak, han dagozalako ardi gehien.

Oin urte pare bat, jente barria sartu da. Oin arte neu izan naz gazteena baina oin 3-4 gazte hasi dira ofizioan. Etorkizuna badago.

MENDIA

Hiru ibilbide izango ditu aurten Areatzako martxeak

Urri bigarrenaren 5ean izango da Areatzako Mendi Martxearen 11. edizioa.

Erredakzioa

Aurten hiru ibilbide ditu aukeran; martxa luzeari (27 km) eta laburrari (19 km) hirugarren bat gehitu jakie, familiarra 12 kilometrokoa. Izen-emotea urri lehenengoaren 26an amaitu zan eta martxearen egunean ezin da izenik emon.

Ibilbide familiarragaz, jente gehiagok eukiko dau aukerea Areatzako lehengo bideak ezetuteko. Izan be, horixe izan da Areatzako Martxearen helburuetako bat sortu zanetik, antxinako bideak errekuperatu eta jenteari erakutsi. "Aurten be, urtero moduan, antxinako bide barri bat berreskuratuko dogu. Aurten amaieran. Lana dauka, garbiketa handia egin behar dalako, baina pena merezidu dau" azaldu deutso BEGITURI Xabier Iturriaga antolakuntzakoak.

Ibilbideak

Areatzako Gudarien Plazan batuko dira ibiltariak, 08:00etan martxa luzea eta martxa laburra egin behar dabenak. Plazatik bertatik abiatuko dira martxa luzea egin gura dabenak; laburra egiteko barriz, Bikozganetik urtengo dira partaideak, baina Bikozganera joateko

antolakuntzeak ipinitako autobusa hartuko dabe plazan. Martxa familiarrekoek 09:00etan ekingo deusie ibilbideari. Aurtengo ibilbidea ez da Arranbaltzatik pasauko, Upo, Urkidi eta Mendigana dira martxalariak zapalduko dabezan tontorrak eta punturik altuena Arraba izango da. Ibilbide luzeak horniketa puntu bi izango ditu, eta laburrak eta familiarrak, bana.

Amaitutakoan, partaide guztientzat parrilladea egongo da. "Txorizoa, urdaia eta aurten saltxitxak be bai. Garagardao bat be emongo jako partaide bakoxtari" dino Iturriagak.

Oparia be izango dabe partaideek eta Areatzako Hotelak bonu bikotxa zozketatuko dau.



DUATLOIA

Asperger sindromedunen alkartearentzat izango da Igorreko X. Duatloi Txikian batutako dirua

Erredakzioa

Hilaren 6an izango da Igorreko Udalak eta Oskar Garro Lagun Taldeak antolatutako X. Duatloi Txikia. Hamabost urte artekoek hartu daikie parte, edadearen arabera galapaneko eta bizikleta probetan, eskoletan, 11:00etatik aurrera.

Izen-emotea bertan egingo da 10:30etik 10:50era arte, hiru euroko prezioan. Batutako dirua, Aspertxu Fundazioarentzat izango da. Alkartea, etekin asmo bakoa da eta bertan batzean dira Asperger eta espekto autistaren arazoak dituen helduak eta umeen gurasoak. Alkarteko kideak egongo dira sindrome honek azalduten eta euren lanaren barri emoten.

Probak

Edadearen arabera lau lasterketa egongo dira. Lehenengoan, lau urte arteko umeek hartuko dabe parte eta 240 metro galapan, 330 metro bizikletan eta beste 100 metro galapan egingo ditue. Bost eta zazpi urte bitartekoek, barriz, 360 metro arineketan, 560 metro bizikletan eta beste 300 metro galapan. Zortzi eta hamar urte artekoek eta hamaika eta hamabost urte artekoek distantzia bera egingo dabe baina lasterketa bananduetan: 600 metro arineketan, 560 metro bizikletan eta beste 300 metro arineketan.

Amaieran, dominak bananduko dira, opariak zozketatu eta kopaua egongo da partaide guztientzat.

FUTBOLA

Gizonezkoen eta andrazkoen Arratia A taldeak lehenengo postuetan

Gizonezkoen Arratia A eta andrazkoen A taldeak sailkapeneko lehen postuetan dagoz lehen partiduak jokatu ostean, Gizonezkoen Arratia B taldeak oster partidubitan puntu bi eskuratu ditu eta Lemoako Harrobik ez dau punturik lortu oindino. Andrazkoen B taldeak urri bigarreneko lehen astegoienean hasiko dau liga.

Erredakzioa

Gizonezkoen Arratia A taldeak urri lehenengoaren 28an jokatu eban etxetik kanpo Astrabuduako taldearen kontra eta 2-3 irabazi eban. Partidu biren ostean 6 puntu ditu eta sailkapeneko lehen postuetan dago. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Abadiño A taldearen kontra urri bigarrenaren 5ean, arrastiko 18:00etan.

Gizonezkoen Arratia B taldeak urri lehenengoaren 29an jokatu eban Urbietan Gernika B taldearen kontra eta husna bardindu eban. Partidu biren ostean puntu bi ditu Arratia Bk eta hamahirugarren dago sailkapenean. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Begoña A taldearen kontra urri bigarrenaren 6an, goizeko 11:15ean.

Andrazkoak

Andrazkoen Arratia A taldeak urri lehenengoaren 29an jokatu eban

Bizkerre taldearen kontra Urbietan eta 0-1 galdu eban. Lau partiduren ostean 9 puntu ditu Arratia Ak eta Bigarren postuan dago lider dan Bizkerregandik puntu batera. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Alaves B taldearen kontra urri bigarrenaren 5ean, arrastiko 18:30ean.

Andrazkoen Arratia B taldeak oster, datorren domekan, urri bigarrenak 6, eguerdiko 13:15ean, hasiko dau liga Urbietan Basau-

riko Kimuak B taldearen kontra.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik urri lehenengoaren 28an jokatu eban etxean eta 0-3 galdu eban Begoña Aren kontra. Partidu biren ostean ez dauka punturik Lemoako taldeak eta jatsiera postuetan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau San Miguel A taldearen kontra urri bigarrenaren 5ean, arrastiko 18:00etan.



Arratia A eta Bizkerrearen arteko partidua.

BOLA JOKOA

Zeanuriko Kofradien Arteko Bola Txapelketea urri bigarrenaren 5ean Alzustan jokatu da

Jon Urutxurtu

Urri bigarrenaren 5ean, zapa-tuan, arrastiko 17:30etik aurrera Alzustako bolalekuan jokatu da Zeanuriko Kofradien Arteko Bola Txapelketea.

Udalerria osotuten daben zazpi kofradietako ordezkariak hartuko dabe parte taldeka jokatzen dan txapelketan: Alzua, Alzustak, Assterriak, Ibarguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Urubek.

Talde 4 bolarik osotuko dabe, bolari bakoetak 6 jaurtiketa egingo dauz, eta taldekide guztiak botatuko txirloen batuketea hartuko da kontuan; beraz, txirlo gehien botaten dauan kofradia izango da irabazlea eta bardinketea egongo balitz, gerrea jokatu litzateke.

Igaz undurragaztarrak izan ziran

irabazleak, 16 txirlo botata. Bigarren Alzusta eta hirugarren Otzerinmendi sailkatu ziran, 11 eta 10 txirlogaz hurrenez hurren.

Bestalde, abuztuaren 11n San Lontzon jokatu zan bakarkako

txapelketan Luis Mari Goioaga undurragaztarrak jantzi eban txapela, lauko jaurtiketa bategaz. Bigarren eta hirugarren tokietan Gotzon Erkiaga eta Eusebio Larrazabal sailkatu ziran.



Bola joko Zeanurin.

Argazkia: Jon Urutxurtu.

BERBALAGUN

Berbalagun taldeetan parte hartzeako izena emon daiteke Kubulu Euskaltegian

Erredakzioa

Berbalagun taldeen ordutegi aukerea zabala da, eta tabernetako ohiko taldeez gainera, beste talde batzuk be badagoz, paseo taldea esate baterako. Izena arratia_berbalagun@aekeus.org helbidean, 662 199 033 telefonoan edo Igorreko Kubulu



Euskaltegian emon daiteke.

Berbalagun ekimenaren euskerazko mintzapraktikak debalde dira eta hainbat jardura desbardinatarako aukerea emoten dabe: mintzataldeak, familia ekintzak, txangoak, tailerrak, mintzodromoak, lehiaketak, berbaldiak, mendi urtekerak eta astegoienspasa, beste batzuen artean. Edade guztietako jentearantz da eta partaideek zozketetan parte hartzean dabe eta deskontuak eta opariak izaten ditue.

Familia astegoiena euskeraz

Urtxintxa Eskoleak eta Praktikatua AEK-k, gurasolaguntzako astegoiak antolatu dabez Urduñako Tartanga aterpetxean. Aukera bi dagoz: urri bigarrenaren 19tik 20ra eta zemendiaren 9tik 10era. Izena herriko dinamizatzaileari emon behar jako.

LEHIAKETEAK

Arnasetik, gazteei zuzendutako bideosormen lehiaketea, martxan da

Erredakzioa

Arnasa Gara ekimenak euskeraren arnaguneak osotuten dabezan udalerrri euskaldunetako gazteei zuzendutako lehiaketearen hirugarren edizioa abiatu dau. Lehiaketeak hiru kategoria ditu adinaren arabera; LH 5-6, DBH 1-2, eta DBH 3-4, eta 500 euroko balioa daukien 4 sari bananduko dira. Parte hartzeako atzen eguna urri bigarrenaren 31 izango da.

Arnasa Gara UEMAK, Eusko Jaurilaritza eta Nafarroako Gobernua alkarregaz sustatutako egitasmoa da, eta euskerearen arnaguneek daukien garrantzia jente-arteratzea dauka helburu, euskerearen bizibarrizteari eta euskerearen herriari egiten deustien ekarpena nabarmenduz. 2023ko edizioan 112 lan jaso ebazan ekimenak eta 1.600 boto baino gehiago.

Lehiaketan, arnaguneetako ikastetxeetako ikasleek hartu daieke parte banaka edo lagunartean. Euren egitekoa euskerari lotutako istorioak kontetea da minutu biko ikus-entzunezko lanen bidez.

Hiru kategoria, hiru erronka
Hiru kategoria dagoz eta kate-

goria baxotxean erronka bateri erantzuteko bideoak aurkeztuko dabez partaideek. LH 5. eta 6. mailako ikasleek euren herriko txoko maite baterako bidea erakutsi beharko dabe eta azaldu zergaitik dan eurentzat hain berezia. DBH 1. eta 2. mailakoeu euren herrietako urteko egunik berezienerako zelant prestatzen diran erakutsi behar dabe, jaia zelant sortu zan eta egun horretan zer sentitzen daben. DBH 3. eta 4. koek, barriz, jenteari kalean galdetuko deustie herriko zein beste personaren azalean jarriko litzatekezan; gero horregana joan eta galdera bera egin, bost personako segida egin arte.

Kategoria baxotxak 500 euroko sari baliokide bat izango dau eta publikoaren saria be egongo da. Saria, IrisarriLand-en, Durangoko Azokan, EITB-ko Goazen! eta Irabazi arte! telesailen *merchandising*-ean, Gure Zirkuan, eta abarren gastau ahal izango dabe.

Publikoak zemendiaren 5etik 15era emon ahal izango dau botoa, arnasagara.eus webgunean.



ONDAREA

Bide, sare eta loturen ondarea izango dabe gaitzat aurten Ondarearen Europako Jardunaldiek

Bizkaiak landuko dauan gaiak, bide, sare eta loturen ondareak, Arratiako herrietako urigintza, historia eta ezaugarrietan ikusi daiteke; bideek eta jentearen joan-etorriek garrantzia handia izan dabelako bailararen historian.

Erredakzioa

Hori dala-ta, asko izango dira hile honetan Arratia eta Zeberion egingo diran ibilbide gidatu eta berbaldiak.

Arratiako tranbiak hartuko dau protagonismo handia: Areatzak, Bediak eta Zeanurik tranbiaren inguruko jarduerak antolatu ditue.

Nekazaritzari eta artzaintzari lotutako bideak: Arantzazu eta Zeanurin

Arantzazuko Udalak, Ondarearen Europako Jardunaldiaren harira, *Arantzazu: ardoa, mahastiak eta txakolina* izeneko pasealdia eta solasaldia antolatu dau Juanjo Hildalgoren eskutik. Urri bigarrenaren 5ean izango da, 10:00etatik 13:00etara, plazatik urtenda. Mahatsondoaren laborantza tradizionalak, edariak ekoizti, garraiatu, biltegitratzea eta edateak itxitako material etnografikoak erakutsiko ditue.

Gorbeia Parketxeak be, artzaintzari lotutako beste ibilbide gidatu bat prestatu dau Zeanurin urri bigarrenaren 15erako. Saldropoko atsedenekuan batuko dira interesdunak 10:00etan, lau orduko jardura honetarako eta GR-282, artzaintzaren naturbideko hirugarren etapako tarte bat egingo dabe. Saldropotik Arrabako zelaietaraino, artzainak gogoratu eta euren lana goraiapatuko dabe. Leku kopurua mugatua da eta izena gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan emon behar da.

Dima: hildakoen bidea eta ibilbide magikoa

Diman ibilbide bi egiteko aukerea egongo da hile honetan. Udalak, Antzasti Euskaldunon Etxeak eta Txumuluxueta kultur alkarteak, urri bigarrenaren 6an, Artaun auzoko lehenagoko andabidean zehar ibilaldi gidatu bat antolatu dabe, bide honek eukien funzino soziala balioan ipinteko. Hitzordua, 10:30ean da Artaungo plazan.

Baltzola-Indusi ibilbide magikoa izeneko ibilbide gidatua be an-



tolatu dabe urri bigarrenaren 27rako. Leku kopurua mugatua da ekintza bietan eta izena alde aurretik emon behar da 94 631 57 25 telefonoan.

Arratiako tranbia: Bedia, Areatza eta Zeanurin

Bedian, Arratiako tranbiak herri-tik eukan ibilbidea jakiteko ibilbide gidatua antolatu dau Udalak urri bigarrenaren 12rako. Hitzordua 10:00etan da plazan. "Bediatik igaroten dan ibilbide gidatu honegaz garraibide honen xehetasun eta bitxikeriak ikasiko doguz, gero, egungo trenaren pareko bidetik itzuliz".


Hurrengo egunean, Areatzan, Angel Larreak eta Jon Urutxurtuk *Errege Bidetik Arratiako Tranbiara* izeneko ibilbide gidatuagaz, herriko kaleetatik zeharreko ibilbidea erakutsi eta azalduko dabe. Areatzako eta Arratia bailarako bide eta ibilbide historikoen ondareagaz erlazonatuta dagozan elementu bi izango ditue aztergai: Erdi Aroan sortutako "Erret Bidea" eta XX. mendean zehar

martxan egon zan Arratiako tranbia, hain zuzen be. Elementu bi honek nondik pasetan ziran ikusiko dabe partaideek. Leku kopurua mugatua da eta izena alde aurretik emon behar da 94 673 90 10 telefonoan edo areatzakoudala.areatza@bizkaia.org helbidean.

Arratiako tranbiaren gaineko hirugarren jardurea, Jon Urutxurturen *60 urte Arratiako tranbia barik* berbaldia izango da hilaren 18an, 19:00etan, Zeanuriko Kultur Etxean.

Zeberioko Errege Bidea

Juanjo Hildalgoren eskutik, Zeberiotik pasetan zan Errege Bidea bisitetako aukerea egongo da urri bigarrenaren 12an, 10:30ean, Ermitabarrin. "Zeberioko Errege Bidearen goiko tartearen gaineko esku-hartze bateri esker, Etxebarri eta Undurruga auzoen artetik igaroten dan lekuan, XVIII. mendeko bidarriaren jatorrizko harzolare zati bat topau da. Bidarri haretatik, Miraballes uribildutik Arratiara joaten zan".



Goian tranbia Areatzan eta behean artzaintzari lotutako irudia.

IKASTAROA

Ondoizate emozionala zaintzeako ikastaroa Igorren

Erredakzioa

Nire ongizate emozionala zaintzen izeneko ikastaroa egongo da Igorreko Kultur Etxean, urri bigarrenaren 16tik abenduaren 4ra arteko eguaztenetan. Zortzi saio izango dira, bakotxa ordu bi eta erdikoak, 11:00etatik 13:30era. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 23 lekutan dagoz programauta saioak.

Osakidetzaren Paziente Bizia programearen barruko tailer bat da, nor bere burua zaintzen ikastea helburu daukana. Tailerrean, emozioen kudeaketa, elikadura, atsedena eta komunikazioa landuko dabez. Gaixotasun batez edo gehiagotaz bizi eta Osakidetzak akreditatutako monitoreak dira Paziente Bizia osotuten dabena. Norberak ikasitakoa eta norberaren esperientziak partekatzen ditue.

Izena 607 155 671 telefonon edo komunitatealehenarretan.barrualdegaldakao@osakidetza.eus helbidean emon daiteke.

EUSKARALDIA

200 lagunetik gora Euskaraldia ON! Topaketan



Erredakzioa

Boluntarioak, euskera alkar-teetako kideak, herritarrak eta teknikariak bildu ziran urri lehenengoaren 26an Eibarren herrietan aktibazioan eragiteko gako barriak jasoteko. Arratiatik, Areatza eta Dimako ordezkariak egon ziran bertan.

Topaketan, euskerearen aktibatzaileen gida-liburua aurkeztu zan, Euskaraldia aktibatu eta herriz herri herritarrak sartzeko gida praktikoa, hain zuzen be. Euskaraldiaren momentua sortzeako, osatzeko,

sarea irudikatze, ekintzak antolatze eta indarbarritze hainbat kako emoten dituana.

Euskaraldiaren laugarren edizioa izango da, 2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo dana, eta Eibarko topaketak izan ziran ariketaren lehen mugarrria. Antolaketan ibilitako edo ibiliko diran boluntario, teknikari eta eragileek herritarren aktibaziorako modu barrien proposamenak entzun ebezan eta herrietako mobimentuen garrantzia azpimarratu zan.

Topaketea amaitzeko Bulego taldeko Tomas Lizarazuk kantu bi interpretatu ebazan.

ERAKUSKETEAK

Ertibil erakusketea Igorreko Kultur Etxean egongo da

Erredakzioa

Ertibil, Bizkaiko Arte Bisualen Erakusketa Ibiltariaren 42. edizioan, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako lehiaketan, Bizkaian bizi eta lan egiten dabena 18 sortzaileen lanak erakusten dira. Erakusketea bost udalerrietan egongo da ikusgai: Getxo, Basauri, Igorre, Derio eta Amorebieta-Etxanon. Igorren, urri bigarrenaren 5etik 31ra arte egongo da ikusteko aukerea.

Lanak ugariak dira: instalazioak, margolanak (olioa, akrilikoa eta pastela), bideoa,


eskultura eta argazkigintza. Gaur egungo arte panoramea eta sortzaileen talentua erakusten dau Ertibilek. Leo Burge, M. Benito Piriz, Lucía Jayo Altamirano, Tana Garrido Ruiz, Maider Gonzalo Salceda, Ángela R., Jon Ander Terroba, Ane Diez de Ulzurrun, Hodei Herreros, Idoia Leache, Julia Martos, Víctor Ortuño, Aida Valdes, Ane Berganza, Unai Cardoner, Martzel do Nascimento Goiria, Garazi Etxebarria Azurmendi eta Bakarne González & Eva Rayak osotutako bikoteen lanek osotuten dabe erakusketa ibiltaria.



DUNBA

Gure baitan dagozan altxorak

Bizkaiko bailara triker batetik mundura. Gure trokotik, zuenera. Arbola zahar baina lurrari sendo lotutakoak, jarraitzen dau emoten, ondo zaindu eta elikatu ezkeru, babes gozoa. Aiko hemen Otzarretako pigoetako zuztar, ebor, adaxka, hosto, frutu eta hazi.



Arratia BHI



AGENDEA

URRI BIGARRENAK 2
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 10era arte, 12an izango dan baba-jan herrikoirako txartelak salgai Herriko Tabernan eta Montero tabernan.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Hilaren 12an izango dan Euskal Jaiko bazkarirako txartelak salgai Aldamin, Batzokia, Bixer, Eguzki, Hagina, Ixua eta The Quiet Corner-en. Prezioa: 20 euro. Menua: ondo etorri gildea, marmitakoa, oilasko errea eta pantxinetea edo humusa eta gazpatxoa, txanpiak berakatzagaz, seitana, gari-zainzuri eta piper gorriakaz eta pantxinetea.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Hilaren 13an euskeraz eta 20an gazteleeraz izango diran *Errege Bidetik Arratiako Tranbiara* ibilbiderako izen-emotea 94 673 90 10 telefonoan edo *areatzakoudala.areatza@bizkaia.org* helbidean.

ARRATIA

Hilaren 26ko 12:00ak arte emon daiteke izena Arratiako Maratoi Txikian parte hartzeako *kronoak.com* webgunean. Lasterketea 27an izango da.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

16:30etik 19:30era, hilaren 10era arte, San Martin eguneko bazkarirako (zemendiak 9) izen-emotea liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, Playmobilakaz belena egiten parte hartzeako izen-emotea liburutegian.

DIMA

Hilaren 5ean izango dan *Andabidea bide soil bat baino gehiago* eta 27an egingo dan *Baltzola-Indusi ibilbide magikoa* ibilaldi gidatuarako izen-emotea 94 631 57 25 telefonoan. Leku kopurua bete arte.

16:30etik 19:30era, astelehenetik egunera liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Hilaren 31ra arte, greba egunetan kiroldegia zarratuteagaitik abonua eta ikastaro tasak itzultzeko eskaerak egiteko epea, kiroldegiko harreraren edo *kiroldegia@igorre.net* helbidean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era. Publikoari arretea: astelehenetik egunera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Zemendiaren 10era arte, Lemoax Trail mendi lasterketarako izen-emotea zabalik <https://www.buscametas.com/modulos/ticket/evento.php?codigo=1194> estekan.

Harriketarrak Gazte Asanbladearen

XXV. urteurrenereko afarirako txartelak salgai Karabie Gaztetxean eta Igorreko Axular Herriko Tabernan hilaren 14ra arte.

Hilaren 31ra arte, Lemoako Argazki Lehiaketarako argazkiak bialdu daitezke. Oinarriak www.lemoa.net webgunean.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik 19:00etara.

Hilaren 10era arte, Haurreskolan zemendiaren 4an hasi ahal izateko izena emoteko epea Haurreskolan bertan, 94 673 97 25 telefonoan edo *zeanuri.zeanuri@haurreskolak.eus* helbidean.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

URRI BIGARRENAK 3
AREATZA

17:30ean, Uparan Jubiladuen alkarteak antolatuta, telefono mobikorrari buruzko oinarriko ikastaroa.

URRI BIGARRENAK 4
AREATZA

17:00etatik 20:00etara, hilaren 4, 5 eta 6an, Marimailegu, Euskal Jairako erropak maileguan hartu daitezke Txokitoan.

ARTEA

Jaiak. Herriko Bentako Herriko Kultur Txupina. 18:00etan, pregoia eta txupina; 18:30ean, kalejireia Orkresta Elektrotunagaz; 21:00etan, bertso-afaria. Bertsolariak: Jone Larrinaga, Izar Mendiguren eta Itxaso Paia. Gai-emoile: Alasne Artetxe.

DIMA

Indusiko jaiak. 12:00etan, mezea; 13:00etan, barauskarria; 17:00etan, Briska eta Tute Txapelketak; 19:00etan, txitxi-burduntzia; 21:00etan, Eingo; 22:00etan, txokolata.

URRI BIGARRENAK 5
ARANTZAZU

10:00etatik 13:00etara, *Arantzazu: ardoa*,

mahastiak eta txakolina ibilbide gidatua Juanjo Hidalgoz. Plazan. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

AREATZA

XI. Areatzako Mendi Martxea. 08:00retan, ibilbide luzearen eta laburraren urtekerea; 09:00etan, martxa familiarraren urtekerea; amaitukerana parrilladea martxalariantzat.

18:00etan, Uparan jubiladuen alkarteak antolatuta, Jubiladuen eguna ospatuteko, kopaua eta mahai-jokoak udaletxeko arkupeetan.

ARTEA

Jaiak. Herriko Bentako Herriko Kultur Txupina. 12:00etan, magia saioa; 17:00etan, Igel Txapelketea; 18:00etan, Mikelen "Cochecitos de mierda" lasterketea; 20:00etan, Las Moskas Retrompeteras taldearen kontzertua; 21:30ean, DJ Les Sauvage. Bertako artisten erakusketea eta argazki erakusketea.

BEDIA

Eleizalde Bediako Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarrekin antolatutako Lerinera txangoa eta El Agricultor konserba fabrikara bisita gidatua.

16:00etan, 12 eta 26 urte bitartekoentzako urtekerea Berangoko Sputnikclimbing-era eskaladea egiteko.

DIMA

Indusiko jaiak. 12:30ean, Dimako Gazte Barri jantza taldearen emonaldia; 14:00etan, Baba Lapiko Lehiaketea; 14:30ean, bazkaria; bazkalostean bertsolariak: Ibai Amillategi eta Aissa Intxausti; 17:00etan, umeentzako ekintzak; 19:30ean, Berakatz-zopa, Tortilla eta Ogizko Tostada Lehiaketea; 20:00etan, afaria; ostean, bingo girotua; 22:00etan, Jainaga eta Narbaizagaz erromeria; 22:30ean, txokolata; 23:00etan, zozketea.

IGORRE

09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era, hilaren 31ra arte, Ertibil Bizkaia erakusketea Kultur Etxean.

LEMOA

09:00etan, bizikletaz Zumeltzara igoera Gaztetxe ondoko parkinetik urtenda. Harriketarrak Gazte Asanbladearen 25. urteurrena.

ZEANURI

17:30ean, Kofradien arteko Bola

Txapelketea Alzustako bolalekuan.

ZEBERIO

08:00retan, Austarri Mendi Klubak astegoieneko mendi urtekerea. Ahuzki-Behorlegituturro-Behorlegi-Ibañeta-Lauriñaga-Lindus-Ibañeta.

URRI BIGARRENAK 6
DIMA

10:30ean, *Andabidea, bide soil bat baino gehiago* ibilbide gidatua eta berbaldia Artaungo plazatik. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

IGORRE

Igorreko X. Duetloi Txikia 15 urte artekoentzatat. 10:30etik 10:50era, izen-emotea; 11:00etan, edadearen araberako lasterketak; ostean, dominak, oparien zozketea eta kopaua partaideentzatat. Igorreko Udalak eta Oskar Garro Lagun Taldeak antolatuta. Batutako dirua Aspertxu Fundazioarentzat izango da.

17:00etan, zinea, *Padre no hay más que uno 4*; 19:30ean, *Vidas perfectas*. Lasarte Aretoa.

URRI BIGARRENAK 7
LEMOA

10:30etik 12:30era, astelehenetik egunera hilaren 15era arte, *Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi* ikastaroa KZgunean.

18:30ean, Jai Batzordeak, jaien balorazioa Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

18:00etan, *Mendekotasuna eta zaintzailearen autozainketea* berbaldia. Jubiladuen etxean.

URRI BIGARRENAK 8
BEDIA

17:30etik 19:00etara, herrirako Gabonetako apaingarriak sortzeako tailerreko saioa. Liburutegian.

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra.

URRI BIGARRENAK 9
DIMA

18:00etan, *Mendekotasuna eta zaintzailearen autozainketea* berbaldia. Jubiladuen etxean.

LEMOA

17:00etan, *Mendekotasuna eta zaintzailearen autozainketea* berbaldia. Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 11
ARANTZAZU

Sanfaustoak. 18:00etatik 20:00etara, Mari Scape Room-a Kulturgunean nagusientzat; 21:00etan, Papa Jon Band taldearen kontzertua Herriko Tabernako terrazan.

AREATZA

19:30ean, *Dolu bat eta dolu bi. Zauriak daiguzan josi* liburuen aurkezpena komentuan. Kantuak, bideoa, poemak...

BEDIA

Musika Airean. 18:00etatik 18:45era, Zumba Masterclass; 19:00etatik 20:30era, Fede DJ. Plazan.

IGORRE

17:30ean, Zaztaparrak Asti Taldearen argazki erakusketea Lasarte Aretoa.

LEMOA

22:30ean, Follow Party Gaztetxean. Harriketarrak Gazte Asanbladearen 25. urteurrena.

URRI BIGARRENAK 12
ARANTZAZU

Sanfaustoak. 09:00etan, Jose Luis Atutxa Mugarí Bira plazatik urtenda;

14:30ean, baba-jan herrikoia; 18:00etan, musika plazan; 18:00etatik 20:00etara, Mari Scape Room-a gazteentzatat Kulturgunean; 22:00etan, karaokea Herriko Tabernan.

AREATZA

Euskal Jaia. 10:00etan, Nekazaritza eta Artisautza Azokea; 13:00etan, Arantzarte Dantza Taldearen emonaldia plazan; 14:00etan, Areatzako Bandaren kalejireia herrian zehar; 15:00etan, bazkaria; 18:00etan, Orkresta Elektrotunagaz kalejireia herrian zehar; 20:30ean, berakatz-zopea; 21:30ean, erromeria Zutik taldeagaz.

BEDIA

10:00etan, *Arratiako Tranbiaren bidea* ibilbide gidatua. Plazan. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

ZEBERIO

10:30ean, *Errege Bidea* berbaldia eta bisitaldia Juanjo Hidalgoen eskutik. Ermitabarrin. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

URRI BIGARRENAK 13
ARANTZAZU

Sanfaustoak. 10:00etan, Arantzazuko txistularien dienea; 10:30ean, mezea; 11:00etatik 15:00etara, Gure 4. Azoka. Arratiako artisauek, ehun eta erropa barriak eta bigarren eskuko musika eta liburuak; 12:00etan, Walas magoa; 13:00etan, Bilbao anaiakaz triki-poteoa; 17:00etan, ume eta gazteentzatat pelikulea Kulturgunean; 19:00etan, txokolata Kulturgunean.

AREATZA

12:00etan, *Errege Bidetik Arratiako Tranbiara* ibilbidea herrian zehar, Angel Larreak eta Jon Urutxurtuk gidatuta. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

IGORRE

10:00etan, Garbako Azokea, 12:00etan, herri-kirol erakustaldia: Julen Mendieta, Utxu eta Tubi; 13:00etan, sari banaketea.

17:00etan, zinea, *Robotika* (euskeraz); 19:30ean, *El mayordomo inglés*. Lasarte Aretoa.

URRI BIGARRENAK 15
BEDIA

17:30ean, Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatutako berbaldia *Mendekotasuna eta zaintzailearen autozainketea* liburutegian.

17:30etik 19:00etara, herrirako Gabonetako apaingarriak sortzeako tailerreko saioa. Liburutegian.

LEMOA

13:30ean, komertzioei zuzendutako berbaldi informatiboa Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

10:00etatik 14:00etara, *GR-282 Artzaintza Naturbidea* ibilbide gidatua. Saldropoko atsedenekutik. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

URRI BIGARRENAK 16
ARANTZAZU

18:00etan, *Mendekotasuna eta zaintzailearen autozainketea* berbaldia Kulturgunean.

IGORRE

11:00etatik 13:30era arte, *Nire ongizate emozionala zaintzen* tailerreko saioa Paziente Bizieren eskutik, Kultur Etxean.

ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, Mazala Andra Taldeak antolatuta, *Emakumearen zikloak eta osasun hormonalaren sendabelarrak uztartuz* ikastaroa Garbiñe Larreaen eskutik Kultur Etxean.

Poesia errezitaldi musikatua
Lemoako Kotxepin Kultur Etxean

Gotzon Barandiaranen *Galbahea* liburuko 11 poema musikatu eta errezitauko ditue urri bigarrenaren 11n, 21:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, *Galbahea. Ez gara dena ahazteko nahiko biziko* ikuskizunetan. Lander Bilbao, Mariana Blanco, Rafa Rueda, Urdin Baraiazarra eta Uxue Garcia musikariek lagunduta izango da Barandiaran Lemoan.

Berben zentzua eta bizitzaren zantzua berreskuratzeko, letrazko galbahe bat eregi dau Gotzon Barandiaranek bere poema liburu hone-tan. Maitasunaz egiten dau berba, bere belaunaldiaz, alkarbizitzarako baldintzez, baina baita hildako deserosoz, isilean errepikatutakoez eta harrapatutako kultura baten nekeez be. Memoria ardatzeko gaia izanik, amaren heriotzeak be zeharkatzen dau liburua. Harek berretsi deutso Barandiaraneri, galbahearen beharra.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

GARAJE PARTZELEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. Online klaseak. Kontakua: 672 873 452 (Nerea).

BASERRIA SALTZEAN DA

Zeberion 750 m²ko baserrietxea salduen da inguruan landa zabalagaz. Interesdunek deitu 609 457 016 telefonora.

LANA

FRANTSESEKO KLASAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein

taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

ALEMAN ESKOLAK EMOTEN DIRA

Esperientzia luzeko alemaniarrek adin eta maila guztietako eskolak emoten ditu, online eta aurrez aurre. Interesdunek deitu: 610 863 369.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Esperientziadun andra euskalduna, umeak zaintzeako prest dago. Interesauta egotekotan, deitu 686 341 677 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako gradua PT aitamenagaz ikasi dot. Lehen Hezkuntzako ikasleei edozein arlotan klase partikularak emoten deutesdaz. Interesdunek deitu edo idatzi 693 064 726 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **El mayordomo inglés** filmarako.

Rosario Artetxe (Igorre)
Luis Mari Uriarte (Zeanuri)



2 Lemoako Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Gotzon Barandiaranen Galbahea** poesia errezitaldirako.

Maitane Artabe (Areatza)
Maitane Iruarizaga (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

begitu
eus

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

begitu

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartek, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____
Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.